

ESKU-HUSKA. Goñi II.a ez da osatuko hurrengo astebururako, eta Agirrek ordezkatu du

Eta gaur txapelketa hasiko da

Azken egunotako zalaparten ostean, Esain-Beloki eta Capellan-Elkoro ariko dira Logroñon

Enekoitz Telleria | **DONOSTIA**

Logroñoko Adarraga pilotalekuan hasiko da, gaur, aurtengo Eskuz Binakako Txapelketa, azken egunotako zalaparta guztiekin bati baino gehiagori ahaztu bazaio ere. Esain-Beloki Asegarcekoek eta Capellan-Elkoro Aspekoe abiatuko dute martxoaren 10a arte iraungo duen txapelketa. Gaurkoan, gainera, horrenbesteko ikusmina piztu duen araudi berriaren funtzionamendua ikusteko lehen aukera ere izango da (17:30, Tele 5).

A multzoko partida da gaur jokatu den hori. Esain-Beloki eta Capellan-Elkoro gain, Titin III.a-Zezeaga, Tirapu-Zearra eta Olaizola II.a-Errasti dira multzo horretako beste hiru bikoteak. Guztiek guztien kontra jokatu behar dute, itzuli bakarrera, eta ongi hasteak garrantzi handia duela azpimarratu dute, horregatik, pilotariek. «Bete-bete hasi behar zara hasieratik, oso torneo motza baita», nabarmendu du Beloki txapel-dunak. Txapelketaren inguruan sortu den polemika guztiaz harantza, Asegarceko eta Aspek bikoteak elkarren kontra ariko dira hasieratik. «Pilotazaleak oso gutxitan ikusten gaitu bi enpresetako pilotariak elkarren kontra. Oraingoan, esaterako, Aitor eta biok elkarren kontra ikusteko aukera izango dute, aspaldiko partez, eta ikuslezuna ematen duten bi aurrelari ere bai. Hori oso ona da ikuslearentzat», nabarmendu du Belokik.

Capellane eta Elkoroak Esain behartu nahi dute

Iazko txapelketan ere bikotea osatu zuten Miguel Capellane eta Aitor Elkoro. Iaz, ordea, ez zuten gauza handirik erakustarik izan, ez zituelako txapelketak sasoi onean harrapatu. «Bola ona harrapatu nau txapelketak, eta gustura ari naiz azken hilabeteotan. Elkororekin primeran konpontzen naiz kantxan eta kantxatik kanpo; lagunak gara. Aurten hobeto aritzeko moduan gaude», onartu du Miguel Capellane.

Aspek bikotearen taktika Aitor Elkoro azaldu du: «Beloki da partidaren zama eraman behar duena. Esain pilotari gaztea da, ez dakigu nola erantzun duen, nahiz eta badirudien Belokirekin jokatzen duela ongien. Bikote horrek pilotakadaka atera zaitzake edo hutsak egin. Guk Esain hutsak egitera behartu be-



OSKAR MONTERO

Ruben Beloki, buruz buruko txapel-dun eta binakako egungo txapel-dunordea.


ESKUTIK-EN OHARRA

Hitz egiteko eskaria berretsi du sindikatuak

Herenegun gauean zuzendaritzak egindako bileraren ostean idatzitako oharra atzo eman zuen argitara Eskutiek. Bertan, aurreko oharren zergatiak azaldu, eragindako zalaparta argitu eta han esandako guztiak berretsi ditu pilotarien sindikatuak.

Eskutik ez dela pilotari guztien ahotsa zehaztu dute lehenengo, «sindikatura afiliatutakoena baizik». Asteartean bidalitako oharren edukia bat datorrela sindikatuko kideek hainbat bileretan plazaratutako iritziarekin argitu dute hurrena, eta euren orain arteko elkarrizketarako eta negoziatzaioarako deiek fruiturik eman ez dutelako erabaki zutela horrelako ohar bat idaztea.

Aho batez hartutako lau



Jorge Oteizak Eskutik elkartearentzat egindako anagrama.

puntuen berri emanez amaitu dute oharra. Lehenengoan, joan den astearteko oharrean esandako guztiak berresten dira. Bigarrenetan, berriro elkarrizketarako deia egiten zaie enpresei, eta haiek erabaki hartzeko ahalmena duten pertsonak izendatu ditzatela eskatu. Erakundeei esku hartzeko egindako eskaera be-

resten da hirugarrenean, eta sindikatuak jasotako babesa eta elkartasuna eskertu laugarrenean. Astearteko oharra bidali zenetik, pilotari gehiago afiliatu direla argitu du Eskutik-ek. Astelehenean Nafarroako Gobernuako Kirol eta Gazteri Institutuko zuzendariarekin bilduko da sindikatua, Javier Trigorekin.

har dugu, Beloki oso ongi ari baita azken boladan».

Gaur atsedendaldien araudi berriarekin jokatuko dute lau pilotariek, lehen aldiz. Errioxa-ko Epailen Eskolako Gonzalo Salazar Gurendez izango da atsedendaldia kontrolatzeaz arduratuko den lehen epailea. Bi minutukoak dira atsedena-

eta lau ditu bikote bakoitzak. Bikoteak atsedena eskatzean, txartel urdina edo gorria aterako du epaileak. 20 segundo falta direla, txartel berdea. Buelatzen ez denari, zuria lehenengo eta beltza berean jarraitzen bado. Oraindik zehazteko dagoen isuna dakar horrek.

Bestalde, Binakako Txapel-

ketaren inguruan, Mikel Goñik eman du azken albistea. Min hartuta dago oraindik Oronozkoa, eta ez da osatuko hurrengo astebururako garaiz. Beraz, Imanol Agirrek ordezkatu du, oraingoz, Goñi. Fernando Goñirekin jokatuko du, Asier Olaizola eta Patxi Ruizen kontra.



JOXE LACALLE

Garikoitz Altuna.

ERREMONTA

Binakako Txapelketako seigarren partida gaur, Euskal Jai Berrin

Zeberio II.a-Iriartek eta Altuna II.a-Etxabek Binakako Erremonte Txapelketako seigarren partida jokatu dute gaur, Uharteko Euskal Jai Berri pilotalekuan. Zeberio II.a-Iriartek irabazi egin dituzte orain arte jokatutako bi partidak, eta finalerdietan daude kasik. Altuna II.a-Etxabek, berriz, irabazi egin zuten Altuna I.a-Eizagirren kontra jokatutako euren lehen partida, baina galdu hurrena, Iñigo-Lizasorekin jokatutakoa. Bikote bakoitzak finalerdiak baino lehen lau partida jokatzen dituzenez, oso puntu garrantzitsua dute gaur jokoan.

JAIALDIK

GAURKO PARTIDAK

LOGROÑO. 17:30 (TELE 5).

Koka-Barriola / Nagore-Armenariz.
Binakako Txapelketa: Esain-Beloki / Capellan-Elkoro. Salaberria-Begino / Beloki II.a-Pinedo.

GALARRETA. 16:00.

Zeberio III.a-Reklusa / Zalakain-Lander.
Ezkurra-Badiola / Altuna I.a-Eizagirre.
Elizalde-Aizpuru / Matxin III.a-Lizaso.
Bereziartua-Urreta II.a / Kalonge-Urko.

EUSKAL. 16:00.

Ziganda-Barrenetxea / Larrea-Gaztelu
Binakako Txapelketa:
Zeberio II.a-Iriarte / Altuna II.a-Etxabe.
Matxin-Txikuri / Bitoria-A. Lekunberri.
Lezea-Mendizabal / Iribarren-Etxeberria III.a.

DEPORTIVO. 17:00.

Egibar-Leunda / Zabalza-Ziskar I.a.
Urkie-Torre / Iriondo-Beldarrain.
Urkiyo-Fernando / Casado-Garma.

BIHARKO PARTIDAK

EIBAR. 17:00 (ETB1).

Gonzalez-Arroyo II.a / Berraondo-Hirigoiien.
Binakako Txapelketa: Unanue-Pascual / Olaizola I.a-Ruiz. Haritz-Santi / Txafee-Sukia.

BARAKALDO. 17:00.

Arbizu-Balerdi / Leiza-Galarza VI.a.
Binakako Txapelketa: Tirapu-Zearra / Olaizola II.a-Errasti.

NAJERA. 17:00.

Atxa-Bernal / Otaegi-Matute III.a.
Galarza V.a-Rai / Del Rey / Berna.